


Literatura

Ilargia lekuko
Jesusmari Mendizabal

Erein, 1989



Mundu jakin bat

GEOGRAFIA LITERARIO batzuek fikziozkoa dute izena. Gogoratu gurean Otsabide, Trilluelos, Obaba. Beste batzuek, aldiz, ez dute zertan asmatu izenik, eta ofiziozko mapetan agertzen direnak ekartzen dituzte literaturara: esate batera, Bera, Biriatu, Behobia, Pausu, Irun, Hendaia, Hondarribia, Jesusmari Mendizabalen *Ilargia lekuko* narrazio bilduma honetan. Joserra Garziak, hitzaurretik, “nobela izeneko askok lortzen ez duena lortzen duelarik: mundu jakin baten islada, ikuspegi askotatik eta askotariko ikuspegiz ematea. Polifonia deitzen diote horri adituek”. Eta zein da mundu demonio hori, ez baita bakarrik geografia: bada, “Bidasoa beheko kontrabandisten mundua” –gehi, azken ipuinean, Hondarribiko alegia aspaldiko bat, bonus track gisara–.

Kontrabandistak, beraz, bai, “gau hotzetako gizon busti haiek”. Baina ez bakarrik: berdin etxean zain dauden emakumeak, zelatariarena egiten duen atsoa edota txalupa bitartez aritzen diren arrain saltzaileak. Eta ez halaber bakarrik tabako ron eta kanela: berdin hezur haragizko pertsonak, “marroki, portuges edo dena delakoak, Frantziako aldera eramateko”. Ondo esan zuen Josu Landak 90ean: pertsonaiak abenturero bezala aurkeztu gabe, heroismo erromantikoetatik urrun, kanpoko ikuspegi batek sortarazi ohi dituen joera moralizanteak erabat baztertuz. Baina Landak berriz ondo esan

bezala, pertsonaiak modu positiboegian agertuta, “apenas maltzurkeriarik dagoen eta jende guztiak fideltasunik handienarekin jokatzeko baitu aldioro”.

Akaso izango da bilduma honek ahozko literaturarekin daukan zorraren ondorioa, ikuspegi apur batean manikeoa. Baina zorra ez da nolana hikoia, egileak berak aitortzen du: “Paperetan ez dugu eskaldunok ezer asko esan eta gurerik apenas datoren dokumentaturik. Alde horretatik motz-mutu izan garen arren, ez ahotik belarrirakoan horratik!”. Garziak ere eskertzen dio ahalegina, nahiz egin aditz okerrarekin: “kontakizunak literatur statusera jasotzeko”. Eta konturen bat aurretik irakurrita geneukan Mikel Tabernaren testuren batean, lehen aipatutako bonus track hori egiten zitzaigun noski ezaguna. Geografia partekatzearen ajeak. Baina gera gaitzen hitzaurrean aipatzen denarekin: “Zail da gaur egungo euskal literaturan liburu honen sailkiderik topatzen”. Garaitsu hartakoa da *Obabakoak*.

Itzulpen –*Egunzki kolpea*, 2009ko Euskadi sari– eta gazteentzako liburuen egile, balirudike Juan Rulforen hura gertatu zaiola Mendizabali: helduentzako bilduma bakar, osaba ez baina, auskalo informazio iturria ahitu eta isiltasunaren bidea aukeratu zuela. Nork daki behin-behinekoz. ■

Aritz Galarraga

Antolatzailea: EHAZE

VI. "ESPERIENTZIXAK"
EUSKAL ANTZERKIAREN
MEMORIA HISTORIKOA

Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean
Apirilaren 30ean, 19.00etan

Mahai-ingurua: M^a Karmen Gil Fombedilla,
Ixabel Etxeberria, Patri Urkizu

Moderatzailea: Jaime Valverde

Irakurketa dramatizatua: Maite Arrese, Kepa Errasti

Kiloterdi Txokoa Ellauri

Kepa Ellauri | Altzusta, 38 ZEANURI (Bizkaia)
☎ 686 07 77 96 | www.ellauri.com